

## P1. Ahozko aurkezpen ariketa

**1. Gai bat aukeratu. Film edo liburu baten erreseina bat, azalpen teoriko bat, ikerketa baten emaitza, edota gaurkotasuneko gai bati buruzko iritzia izan daiteke.**

**2. Idatzi bost minutu inguruko iraupena duen testu bat.**

**3. Kontuan hartu:**

- Oinarrizko bi elementu ahozko komunikazioan: zer esan nahi dudan (mezuaren edukia) eta nola esango dudan (nola transmititu)
- Hartzailearen arreta aktiboa sustatzeko, honek jaso eta uler ditzakeen seinaleak erabili behar ditu igorleak. Nola transmititu? Honekin:
- Hitzik gabeko lengoaia (aurpegiaren adierazkortasuna, keinuak, jarrera, begirada ...) eta hitzezko lengoaia (ahots-bolumena, intonazioa, erritmoa, etenaldiak ...).

**4. Ahozko aurkezpena entseatu:**

- Edukiaren eskema memorizatu
- Aurkezpena ensaiatu edukia oso barneratuta izan arte, eta paperera jo gabe kontatzeko gai zarenerarte
- Hitz gakoak azpimarratu
- Aurkezpena berriro entseatu hitz gakoak nabarmenduz: horien artikulazioa motelago ahoskatuko duzu, diskurtsoaren testuinguru orokorrean nabarmendu daitezten.
- Modu pribatuan entseatu ondoren, konfiantzazko pertsonaren baten aurrean egin aurkezpena
- Azken proba honen ondoren, apuntatu zure aurkezpenaren puntu beltzak (zailtasunak). Puntu hauek arazorik ez suposatu arte segi entseguak egiten